



Orbe  
Bertsolaria

Jorge Acha Orbeo

diario lineala  
1991



EGO IBARRA 1992





# GREGORIO ATXA-ORBEA, “ORBE” BERTSOLARIA

Orbe-ren bertsogintza: Xabier Amuriza

Ezagutu zutenen oroimena: Juan Mari Narbaiza  
Pedro Zelaia  
Jon Etxabe

\* Portada eta kontraportadako argazkia: 1930ean Eibarko Otaola, Arrate, Mandiola eta Gorosta Bailadako baserritarrek bere omenaldi egunean “Orbe”ri eman zioten larruzko diploma, Hilario Unzetak egindakoa.



**EGO IBARRA 1992**



*Eibarko Udalaren izenean, eskerrik beroenak "Orbe"ren familiari, batipat bere alaba Felisari, bertsoak eta argazkiak argitara emateko baimena eman eta bere aitaren bizitzaren pasadizoak kontatzeagatik.*

EGO IBARRA IKURRA:

J.A. Arkotxa

ISBN: 604-4688-3

Lege Gordailua: SS - 984/92

Inprimaketa: GERTU E. Koop. - Zubillaga Industrialdea, 9 - OÑATI



Eibarko Alkatesa eta Batzorde-burua izanda, niretzat benetan pozgarria da, “Orbe”k, Gorosta bailadako baserritar harek, orduko denporetan egin zituen bertso-paperak Ego Ibarren zortzigarren liburuan kaleratuta ikustea.

Eibartarrei edo Eibarri buruzko bertsoak, ezin hobeagoak izan. Herrian, denbora hartako edozeinek ikusiko du bere burua bertso horietan. Akaso, askok dauzkate oraindik gogoan.

Badakigu bertso gehiago egin izan zuela, hemen azaltzen ez diren bertso batzuk ere badaudela, norbaiten memorian edo agian etxeren baten, baina guk, bere alabak emandakoak argitaratu ditugu soilik, errespetoa zor diogulako hainbeste urtetan aitaren bertsoak eta oroimena gorde izan dituen emakumeari.

Ez da izango Ego Ibarren azken bertso liburua. Gezurra dirudien arren, Eibarrek izan ditu bertsolariak, bertakoak edo bertan sustraitutakoak, eta, Batzordearen filosofiari eutsiz, “memoria historikoa” berreskuratze aldera, bertsolari edo koplak egile horiek nortzuk izan ziren eta zer egin zuten kaleratzen saiatuko gara, ahal dugun neurrian eta dakigun apurraz baliatuz.



Eibarko Udala

**Aurora Bascaran,**

Alkatesa,

1992ko azaroa



## AURKIBIDEA

I. "ORBE"REN BIZITZA.....	11
II. EZAGUTU ZUTENEN OROIMENA .....	17
Juan Mari Narbaiza	
Pedro Zelaia	
Jon Etxabe	
III. "ORBE"REN BERTSOGINTZAREN GAINEAN .....	27
Xabier Amuriza	
IV. ORBEREN BERTSOAK.....	37
1.- "Gerra Zibila", 72 bertso.	
2.- "Las Modalidades de los Eibarreses" (Eibar eta eibartarrei egindakoak), 25 bertso.	
3.- "Salbadoriari", 25 bertso	
4.- "Arrateri", 5 bertso	





*Gregorio Atxa-Orbea, "Orbe"*



# I. "Orbe"ren bizitza

## **Gregorio Atxa-Orbea Ordorika, "Orbe"**

Gregorio Atxa-Orbea 1884.eko maiatzaren 12an jaio zen Eibarren. Bere ama, Josefa Ordorika Berraondo, Ermuko "Berdengillo" baserrikoa zen. Aita, Pedro Mari Atxa-Orbea, orduko agiriak dioskuen moduan, Eibarko "Orbekua".

Bost anai-arreba ziren: Mikaela, nagusiena, Gregorio, Kandido (eskopetagina), Jose, eta Eugenia, azken hori gazteena.

Gregoriori, mutiletan nagusiena zela eta, maiorazgo izatea tokatu zitzaion eta "Orbe" baserrian bertan geratu zen. Eskolara joan zen, sasoi hartan ohizkoa ez bazen ere, Durangoko jesuitetan ikasi zuen bizpahiru urtez. Mallabiako Benita Uriarte Mallabiarrenarekin ezkondu zen eta alaba bakarra izan zuten, Feliziana, 1914. urtean jaioa. Gregorioren gurasoak, ezkontzeke zegoen Jose anaia eta Berrizko Julia Aizpurua neskamea ere, urte haietan, "Orbe"n bizi ziren.

Gerraurrean, "Orbe" baserrian, tabakoa jasotzen zuten eta horretan ere aritu zen Gregorio. Bere aitak ortugintzarako joera handia zuen eta semeak jarraitu egin zion egiteko horretan.

Jaiotzez eta izatez baserritarra, "Orbe" gaztetatik hasi zen baserritarren alde lan egiten. Gaur Ondamendiko Eskolak dauden inguruan zegoen matadero zaharrean "Orbe"k, beste askorekin batera, lan asko egin zuen "Alkartasuna", baserritarren Elkartearen bitartez -hainbeste bider entzun dugun \*Hermandadía-, abere-hiltegi hura behar zen moduan zaintzeko.

Arrateko Udalekuak edo Koloniak egiterakoan ere izan zuen zerikusia eta 1910. urteko udan Eibarko umeek han pasatu zuten euren opor-denbora. Arraterako uraren kanalizazioa ere egin zuen. Santa Kruzko eskolak egiterakoan

ere han jardun zuen, baserritarrek lurra utzi eta Udalak eskola egin baitzuen Gorosta eta Mandiolako umeentzat.

Elkartean “Orbe”k egindakoaz izkribu asko ez badago ere, argi dagoena omenaldia da, 1930. urtean “*Aginaga, Gorosta, Mandiola, Otaola, ta Arrateko Baserritarrak Euren Zuzenlari Ta Ongile Dan On \*Gergorio Acha Orbeari*” egindako omenaldia. Baserritarrek, “Orbe”ri, euren eskerrona erakutsi nahian, omenaldia eta Hilario Unzetak larruan egindako diploma eskaini zizkioten .

Azpimarratzekoa da Hilario Unzeta irudi-egileak, diplomaren eskumaldean matadero zaharra dibujatu izana “Orbe”k horretan egindako lanaren erakusgarri.

Sekula militatu ez bazuen ere, pentsakeraz errepublikanoa zen eta Arrate eta Gorosta Bailadetako baserri-Alkate aukeratu zuten 1931ko apirilaren 29an, Eibarren Errepublika aldarrikatu eta handik aste pare batera. Hona zer dioen orduko aktaren \*zirriborroak:

*“El Sr. Alcalde, a continuación, da cuenta de haber designado por su parte a D. Gregorio Acha Orbea Alcalde de barrio para los valles de Arrate y Gorosta.”*

Orduko Alkatea Alejandro Telleria zen, eta zinegotzi edo kontzejal, Domingo Kortazar, Juan de los Toyos, Eulogio Garate, Jose Lizarraburu, Felix Arregi, Gregorio Bustindui, Marzelino Baskaran, Mateo Kareaga, Florentino Bueno, Florentino Carral, Kandido Arrizabalaga “Apotxiano”, Jazinto Alberdi, Migel Gorrotxategi, Jose Maria Ojanguren, Jazinto Galarraga , Joakin Elortza eta “Orbe”ren lagun minak ziren Martin Erkiaga eta Esteban Rementería.

Bestalde, Telleria Alkateak, Mataderoko Juntarako aukeratu zuen, Eladio Gisasola, Felix Areta eta Jose Maria Atxa “Gañeko” baserritarrekina batera.

1934ean, Eibarko Fiskal izendatu zuen Iruñeako Lurralde Auzitegi Nagusiko buru zen Jose Maria Olalde Satrustegi jaunak, karguan 1937. urterarte jarraitzeko aginduarekin. Garai hartan fiskal izateak herritarren arteko tira-bira guztietan bitartekari moduan ibiltzea, eta, fiskalak hala egitea komeni zela uste zue-nean, zigorrak eta isunak jartzea zekarren.

Gerratea heltzerakoan, “Orbe”k, frentea zetorrela eta baserritik ihes, Estaziño kalera jo zuen eta handik Eibarko “Buenos Aires” etxera, noiz kartzelaratuko zuten beldurrez, baina lagunak alderdi guztietan zeuzkan eta beste batzuren artean, bere alde gehien egin zuena “Bar España”ko Jesus Guruzeta izan zen, karlista izanda ere, bere alderdi-kideei *“ez daukazue lotsa haundirik holako gizon baten atzetik bazabizie”* esan baitzien.

Gerra-ostean, beste askok bezala, bereak eta bi pasatu zituen. “Orbe”ren bertso gehienak ordukoak dira. Bere biloba Gregoriori bertsoa errezipatu, eta horrek, papereratu egiten zituen. Horri esker eskuratu ditugu bertsook, garai baten inprentaratu eta jendeak erruz kantatzen zituen bertsook\*.

Gregorio Atxa-Orbea 1967ko abuztuaren 11an hil zen 83 urte zituela.

\* Orduko agirietan, “Gergorio” moduan azaltzen da bere izena, berak ostera “Gregorio” sinatzen zuen.

\* “Zirriborroa” diogu orduko aktarik ez dagoelako Eibarko Udalean. Honako hau eta Errepublikara garaioko guztiak, eskuizkribu soilak dira, akta baliorik ez dutenak.

\* Bere bizitzaren berri edukitzeko erreferentzi nagusienak hauek izan dira:

- . Felisa Atxa-Orbea, bere alaba
- . Udaletxeko aktak 1909-1911
- . Errepublika garaioko akta zirriborroak 1931-35
- . Polikarpo Larrañagaren “Contribución a la historia obrera de Euskalerría” Auñamendi Edit. 1977. 2. bolumena, XIII. Atalburua.
- . Gorosta auzokoak
- . Toribio Etxebarria-ren “Lexikoia” (414. eta 598. orrialdeak)
- . “Eibar” On Pedro Zelaiak zuzentzen duen aldizkaria.

\* Bertsoak direla eta, ohar hauek egin beharrean gaude: “Gerra Zibila”ren 72 kaleratzen ditugu



lehen aldiz, baina bere alabak duen jatorrizkoan 74 azaltzen dira. Zoritxarrez, jatorrizkoaren azken orrialdea, amaierako bi bertso horiek zeuzkana, erditik apurtuta dago.

“Las modalidades de los eibarreses” izeneko bertso-sorta osorik dago. Baita “Salbadoria”ri izeneko ere, agian ezagunena inprentaratu eta jende artean banatu zelako. Ostera, “Arrateri” bertsoak, izatez 25 zirenak, bost bakarrik eskuratu ditugu, eta nolabait esateko, “bigarren eskukoak”, “Eibar” aldizkaritik atera baititugu.



*Benita Uriarte, "Orbe"ren emaztea*

## II. Ezagutu zutenen oroimena.

### **Gregorio Atxa-orbea, "Orbe Zaharra"**

**Juan Mari Narbaiza**

Lerro hauek idazterakoan kezka izugarria sortu da nere barnean, egungo pertsonaia nik baino askoz gehiago ezagutzen duen jende pila bat bait dago, horregatik aurrez barka eskatzen dizuet eginkizun honetan ausartu naizelako.

"Orbe zaharra"rekin hasten naiz, guk, gure artean, ez genuelako ia inoiz Gregorio izena erabiltzen berataz mintzatzerakoan.

Gregorio txiki-txikitandik nuen nik ezagun, izan ere, "Ezkaregi Errota" nere jaiotzetik oso gertu dago eta "Orbe" baserria.

Gregorio zen gorputz handikoa, piper gorriaren antzeko sudurra, ahots sendoa, begirada pikaroa, irripar errezekoa, hiztun atsegina eta auzo guztian erregalatzeko adina umore berarekin zuen gizona.

Bazuen hainbat dohainen artean hizketarako xarma eta arte berezi bat. Nahiz kideko aitona-amon, sasoiko andra-gizon, edo neskatila eta mutil koxkor, denentzat zuen ateraldi gustagarriren bat. Besteak beste, "Ezkaregi"ko Luxiano, "Biriñao"ko Benitto eta gure aitona Ziriakorekin zenbat hitz aspertu egin zuen Jainkoak ere ez du jakingo. Gogoan dut nola behin baino gehiagotan, hiru agureak, bakoitza bere soroetan lanean, elkarrekin hizketan iharduten zuen.

Hamaika aldiz entzun izan nion gure amari: "*Gregorio ez danian, akabo errekaldeko umoria!*".

Gregorio goiztiar purrukatua zen. Beti izaten zuten Orben artaldetxo bat eta goizero han aterako zen aitona zahar askoa, "Linda" bere txakurra lagun zuela-



rik, artaldea bazkatzera. Uda partean goizeko bostak orduko hasiko ziren “Linda”ren zaunkak, ardien zintzarri hotsak eta Gregorioren ohiuak...Zenbat loaldi goxo egiten genuen guk mutil koxkorretan diana hura pasa ta gero ere!

Nik ezagutu nuen garaian behintzat “Orbe” fede handiko gizona zen, ez zen zakarra eta ez zen birao zalea, ezta gutxiagorik ere; nik entzun izan nion handiena “*Mekabuen la sapatilla verde*” izan zen.

Lehen esaten nuen bezala, han joango zen Gregorio bere ardiekin, Txingotei mendira. Mendi honek, ardiენტzat jana ez ezik bazuen harentzat xarma berezi bat. Pentsa daiteke Txingotei zuela bere aldare nagusi, norbait hil zela jakinda-koan beti esaten bait zuen: “*fulanongaitxik aitxagure bat errezau dot Txingoteko tontorrian*”.

## **Aitona pikaroa...**

Pasadizo asko konta litezke Gregoriori buruz, baina luzeegi egin gabe horra bi muestratxo.

Behin horrela, gure aita zena, Jose, eta Orben morroi zegoen Pedro Mari atera omen ziren igande goiz baten, edurra sendo zegoela, erbi arrastorik ote zegoen edo...Eguerdi aldera, zigarro bana erreaz, han omen zeuden berriketan, bakoitza bere etxera abiatzeko presa handirik gabe, eta halako baten, hor deitzen dio Gregoriok morroiari: “*Pedromariiii!!*”, morroiak “*ze biozu?*” eta Orbek “*horri, Joxei, esaixozu, berandua dala eta zu etxera bialtzeko*”.

Beste baten, nik hamalau urte nituela edo, Azitaindik gora pista edo kotxebidea egiten genbiltzala, han geniharduen Gregorioren biloba, hura ere Gregorio, eta idazten ari den hau bide izkina baten harrizko horma bat egiten, argin titulurik gabe noski. Halako baten han ikusten dugu siestatik jeiki berri, musu gorri-gorriarekin aitona, eta begirada pikaro eta irripar maltzurrez, hara zer bota zigun:

“*Eitten beste denbora iraungo ote dau zutik...*”

Zer pentsatu ederra jarri zigun haren enbidoak.

## **Orbe bertsolari**

“Orbe zaharrak” berto paper dexente idatzi omen zituen. Gure baserrian ere, gogoratzen naiz mutiko nintzela, paper haietako batzuk bazirela, baina zabarkeriz, edo ez dakit zergatik, guztiak galdu ziren, beraz ez dut haren bertsogintza gehiegi ezagutzen. Hala ere, sarritan entzun nizkion berari aurrez-aurre. Kantatzen ez nuen inoiz somatu. Beti esanaz edo erreztatuz izaten ziren bere bertsoak.

Bizia eta zorrotza zen, arrazoietan ironi askoduna, eta gai asko jorratu zalea: gehienbat seriotasun baten barruan baziren ere, bazuen bestelakorik ere.

Lehenago aipatu dudan bide berria bukatu zela eta, afari eder bat egin genuen “Orbe” baserrian. Han ginen auzokide mordo bat, eta afalostean denok umore onean geundela, hor hasten da Gregorio, berak ohi zuen eran bertso zahar eta tarteka berriak ere, erreztatuz, bide berria denon onerako izan zedila etabar esanaz. Halako baten, lagunen batek ea berdekeri pixka bat ez ote litzatekeen komeniko esan zion, eta “Orbe”k berehala moldatu zuen denok parrez uzteko modukoa. Nik, tamalez, bertsoaren erdia dut gogoan, baina hemen jartzea merezi duela iruditzen zait:

**“ez erortzeko esanagaitxik  
seigarren mandamentuan  
atzera gutxik eitten dabe  
parian jarritxakuan”**

Luzaroan jarrai liteke “Orbe” zenari buruz idazten, baina haren lana dastatzeak merezi du benetan.

Nere aldetik, aintzik-solastxo honek Gregorio gehixago ezagutzen pixkat lagunduko zizuela espero dut.

**Auzoan ez nun izan  
oso maixu txarra  
hargatik daukat bera  
eskertu beharra  
hizketan nahiz bertsotan  
beti barra-barra  
erreka zulo hartan  
zu zinen bakarra  
egun haundirarte  
agur "Orbe zaharra".**



## **Gregorio “ORBE” gogoratzen...**

**Pedro Zelaia**

Gizon jatorra zan “Orbe”ko Gregorio Atxa-Orbea. Izketalari jatorra. Lagunarterako aukerakua. Barriketa bako basarritar jakituna. Urte askuan auzo-alkate izan zan Eibarren eta baita be erriko fiskal. Jaungoikuak bakarrik dakiz baserri-tarren alde, -bereziki Mataderoko gauzak konpontzen eta orretarako bazkun bat sortzen- “Orbe”k egindako biarrak. Bardin Santa Kurutzeko eskola sortzen, Arrateko koloniak eta beste gauza asko bultzatzen...

Gregorio “Orbe” ez zan diruakin erosten zan gizona. Konzientzia aundiakin joka tzen alegindu zan beti. Zuzentasun zalia zan. Ta mundu onetan sarritan oi dan lez, batez be gure gerra egunetan sufritzia tokau jakon eta ez gitxi. Baiñan pasautakuak pasa, gure “Orbe”k ez eban sekula bere gizatasuna galdu. Ez eta damutu be on egiñarekin eta, askotan, “etxekalte” izatearekin.

Iñoiz ez naiz aztuko zelako atsegiñez entzun nebazen, Salbatore egun baten eta Salbatore ermita onduan, arek irakurritako bertsuak Eibarko herriaren omenez berak egiñak.

Ilustraua zan. Olerkari sena zeukan. Bere kantu papelak asko zabaldu ziran gure artian. Jakiteko egarri aundiakin bizi izan zan, batez be eliz gaiak. Aldi librietan, beti libururen bat eukiko eban bere eskuetan.

Arrateren maitalia zan. Zenbat aldiz, bere bior zurian edo zaldi beltzean, ez ete zan eldu Arrateko Amaren ondora!

Laburki bada be, gogoratu nai izan dot lerrotxo auetan “Orbe”ko Gregorio Atxa-orbea. Merezitako eibartar zintzo baten aipamena ziur asko.

## ***“Hura zen gizona, bura!”***

**Jon Etxabe “Don Juan”**

Ahaztuta edo oroitzapenetan korapildua neukan, berataz zerbait idazteko eskatu didatenean. Ezagutu bere azken urteetan ezagutu nuen Gregorio. Antzematen zitzaion gazteagoko gorputz lerdena, tentea, dotorea.

*“Gizon listua. Edozein gauzaz zentzuz berba eingo zetzun. Ikasteko aukerarik izan baeban, eminentzia izango zan.”*

Orbeko etxaurreko gerizpean edo sukalde bazterrean egon ohi ginen, kontu kontari, solasaldi luzeetan, nire abade zereginetara joaten nintzaionean. Ez ditut zehazki gogoratzen bere historioak, baina bai arlo guztietako gaiak erabiltzen genituela: gertakariak, esperientziak, Eibarko gorabeherak eta pertsonaiak, bere bizitzako zertzeladak. Ezagun zitzaion bere izakera ekinkorra. Gustokoa zuen hitz egitea, bere eten gabeko hitz-jario patxaratsu, pausatu, lasaian. Kontu interesgarriak ziren beti, edo interesgarri bihurtzen zituen. Atseginez entzuten zitzaion.

*“Zuzena. Danen errespetua eban. Arrazoitsua. Pakegizona. Bakiatik asko eruan behar ebala esate eban”.*


Orekatua, barea, Euskal patriarka zirudien. Kontseilu bat beti prest, baita iritzi arrazoitsu bat ere. Alderdi onari begira. Inorengatik ezer txarrik ez dela esan behar errepikatuz.

*“Arratsaldian abadia, bai abadia, ondo juan abadia...”* “Abadia” hitza tartekatzen zuen nirekin hitzegiterakoan, apaizarenganako errespetuaren adierazgarria bezala. Begirune haundikoa eliza-fede gauzetan. Eliza kutsuko filosofia, pentsakera, moralak, bizikera eta giza baloreak oso bereak zituen, bizi

egiten zituen. Elizkoia zenaren oroitzapenik ez dut. Eliztarrarena, bai. Bestee-  
kiko, ordez, ez zen berekoia, errespetu haundikoa baizik.

“Jende asko izan zan entierruan” diote auzokideek Gregorioren osparen  
ohartzun bezala. Eta hala izan zen. Herri osoa bildu zitzaion Azitaingo Eliza  
inguruan bere azken agurrean.

Gregorio ez zen edozein izan.



*Arraten, Eibarko baserritar denak "Orbe"ren inguruan bere omenaldian.*

# III. "Orbe"ren bertsogintzaren gainean

Xabier Amuriza

## "Orbe" bertsolaria

Lau bertso sorta dira komentatzera noanak. "**SALBADORIARI**" bost bertso. "**ARRATERI**" bost bertso. "**GERRA ZIBILA**", hirurogeita hamabi bertso, eta azkenik "**LAS MODALIDADES DE LOS EIBARRESES**", hogeita bost bertso.

Hasteko nahiko harritzekoa da bi gairi eskainitako bertso kopurua: Eibartarren hogeita bost bertsoak, eta nola ez gerra zibilaren hirurogeita hamabiak. Gerraren kontatera edo halako gertaera historikoen kronika balitz, luzetasun hori bidezko gerta liteke, gerra batek hainbeste gauza kontagarri sortzen bait du. Baina ez dira bertso historikoak, gogoetak baizik. Gerra osteko giro orokor, lapurreta, elkar saltze eta horrelako ardatz batzuren inguruan, prediku luze bat osatzen da, bertso asko oso elkarren antzekoak izanik, eta ideia berak berriturik. Badirudi "Orbe"k astiz egin zituela bertso hauek, lantzean bat eta denbora luzean, eta gero denak bertan utzi, ezer kentzeak pena emanda-edo. Baina segur asko luzetasun hori jakinez gainerakoa izango zen, gaiaren garrantzia, handitasuna nabarmentzeko.

Eibartarrei dedikaturiko hogeita bostak ere ez dira gutxi. Hor ere argi dago beretzat gai handia zela eta ezin zuela ikutu batzuk eginda bakarrik bertan behera utzi.

Bertso jarrien tradizioan kopuruari buruz tarte baten barruan malgutasuna nabari bada ere, gehienez baten halako standard bat. "Txirrita" dozena baten inguruan ibiliko da, eta hortxe nonbait besteak ere, beherantz maizago gorantz baino. "Orbe"k bertsoaren ulerkera monumentala dauka, agian elizkizun solemneetatik zetorkiona, agian Jesukristoren pasio-kantu luzetik, agian sermoi egituratik, edo beste gabe berak halaxe sentitzen zuelako.

## ***Gaia***

Gaiak ez dira asko eta hor daude: bat erlijiosoa, **SALBADORIARI**, bat lekuzkoa, **ARRATERI**, bat jendezkoa **EIBARTARREI**, eta bat girozkoa eta gertaerazkoa, **GERRA ZIBILA**. Gaien trataerak badu komuntasun bat: erlijioa eta morala. Horretan “Orbe” “euskaldun fededun”aren eredu litzateke, ez bakarrik eredu pasiboa, eragilea baizik. Izan ez ezik, izan arazi nahi du. Predikari sekularra esango genuke.

Ematen duen mezuan seguru aurkitzen da. Inolako zalantzarik ez dauka. Elizari buruz behin agertzen da halako salapen bigundu bat. Gerrosteko pobretasunaz ari dela dio:

**“Estraperluan erosteko dirurik  
pobriak ez du eukitzen  
da Eleizak ere ez da konbeniko ta  
ez dio kasu aundirik egiten.”**

**“Ez da konbeniko”** hori oso adierazgarria da. Hutsean ezin esan Elizak pobreak ez diola kasurik egiten.

Baina hori bai. **“Pobrea”** eta **“langilea”** aipamen etengabea da “Orbe”ren bertsoetan. Gerra osteko giroan jende pobrea hala engainatzeak eta lumatzeak min handia ematen dio. Bertso sorta hain luzearen azpi haria horixe da izan ere: nola jende gaisoa tranpa eta abusu guztien mende aurkitzen den.

**Eibartarren bertsoak**, eibartarrak goratzeaz gainera, haien kontra zebiltzan esamesetatik defenditzeko eginak dira. Eibarren, antza, dirua ugari samar zebilen, eta diruak ez daki ezkutuan egoten. Horrek ingurukoei inbidia sortzen die eta hortik datoz gaizki esanak. Zeharka edo kontratik bada ere, “Orbe” bapoz baliatzen da eibartasunaz harrotzeko.

## ***Errima***

“Orbe”ren errima oso sinplea eta konplikaziorik gabekoa da. Gehiena deklinabidean oinarriturik, bertan ere ez darabil zorrotasun handirik. Ehunda zazpi bertsoen oinak honela amaitzen dira:



IAN = 13, KIN = 11, UAN= 8, UAK = 8, IA = 7, TZEN = 7, RI = 6, IAK = 4, TU = 4, ETAN = 4, UA = 3, NA = 3, TE = 3, NAK = 2, IKAN = 2, ZAN-SAN = 2, TZA = 2, eta beste guztiak bana: SO, IK, IO, UN, NAK, ZI, IÑA, AI, LA, RIK, NDU, ARA, ÑAK, ÑO, TIK, AGO, DA, eta DIRA.

Azken bi hauetan aditz horiek atzizkiak balira bezala jotzen dira errimarako, hots, ez dira potoak: “EGON DA”, “IZAN DA”, “JUAN DA”. Hori bertso tradizioan nahiko normala izan da garai baterarte. “DIRA”ren kasua nabarmenagoa izanik, bi silaba bait ditu, “Orbe”k berdin hartzen du. Bertso bat honela erri-matzen du “Ikusten DIRA...izan DIRA...bizi DIRA...ez DIRA...kontentatzen DIRA”.

Errima bakoitzaren barruan, berez hala diren hitzak eta deklinabidean lokalismoen arabera aldatzen direnak lasai nahasten ditu. Esaterako: “batian”, “mendian”, “aldian”, “guztian”, “gaitian”, non “batean” eta “gaitean” aldatuak beste hiru aldagabeeekin nahasten diren. Beste adibide batzuk: “munduan”, “inguruan”, “lepuan”, “kolkuan”, “lekuan”. “Lujua”, “dijua”, “estua”, “disgustua”, “errespetua”. “Laboria”, “beria”, “borondatia”, “ogia”, “haundia”...etab. Tradizioan, bertso jartzaile entzutetsuek ez dute honelako nahasterik egiten, jarrietan behintzat, bapatean lizentzi hori nahiko zabal badago ere. Txiritak adibidez, “artian, urtian, partian, bitartian” jarriko ditu normalean bere hizkerako aldakinez, baina ez ditu nahastuko “tokia” eta “pakia” edo “lekua” eta “lepua” adibidez.

## ***Hizkera edo euskalkia***

“Orbe”ren bertsoak gipuzkeraz jarriak daude, tradizio nagusiaren arabera, baina bere etxe hizkuntza eibarkera izanik, honek bizkaierarekin zerikusi gehiago dauka gipuzkerarekin baino. Hori bere bertsoetan garbi nabari da. Ez zituen bertsoak bere hizkeran jarri, eta bestalde ez zuen gipuzkera ere guztiz ondo ikasi.

Hor daude Eibarko forma asko: **seixa, baltzak, gitxitan, antza** (besteéntzako “hatsa” edo “kiratsa”) **deiola, berba, deu, jausi, leikian, deigula, emon, daukaguz, deizun, entzuntallieri** (entzuleei), etabar.

Horien artean aditz forma misto oso bitxiak daude: **daudete, zaiguz, leza-**

## kez, diguz, litekez...

Forma hauek bizkaieraren eremukoei oso normal egingo zaizkie: jaku-jakuz, beraz, zaigu-zaiguz, leike-leikez, beraz, lezake-lezakez, dausku-dauskuz, beraz, digu-diguz. Bizkaierari ZKI artizki hori -dizkigu, zaizkigu, e.a.- oso arraro eta kontrako egiten zaio, Z bat azkenean erantsi eta hain errez pluraltzen ohituta egonik: dagoz, dakiguz, daroz, jatzuz, eidazuz, etab.

“**DAUDETE**” forma hori ere oso esangarria da. Nonbait “Orbe”ren belarriari “daude” ez zitzaion plurala iruditzen, edo ez zegoen oso ziur, eta TE atzizkia eransten dio. Badira Gipuzkoan ere “daudez” eta horrelako formak, errimatze-ko komeni denean sartzen direnak, baina “Orbe”k ez du ezertarako komeni zaiolako egiten, hala ematen diolako baizik. “Dauka-daukate” beraz, “daude-daudete”, edo horrelako zerbait.

Neu ere gogoratzen naiz “daude” hori itsatsita gelditu zitzaidala, lehenengoz entzun nuenean. Mutikoa nintzen, eta herrira etorri zen fraile napar batek hala esaten zuen eta gogoan dut asko txokatu zitzaidala.

Herriko abadearen etxean bazkari bat zen, eta denbora guztia “daude” hori zer izan ote zitekeen igarri ezinik eman nuen. Niretzat ezuste handia izan zen Euskal Herri guztian euskara berdina ez zela egiten jakitea. Ezustea, eta egia esateko, desilusia ere bai.

## Neurria

“Orbe”ren bertso jarriotan harrigarria da neurriari ematen dion malgutasuna. Bertso guztiak bost puntukoak dira. “**Salbadoriari**” eta “**Arrateri**” hamarreko handian, eta “**Gerra zibila**” eta “**Las modalidades de los Eibarreses**” hamarreko txikian. Edo asmoa hala dirudi behintzat, neurria komeni zaion guztia luzatzen bait du, nahi duena esateko. Denak bost puntukoak izanik, agian azpian doinu bakarren bat izango zuen gidari. Hamarreko handietan oso inguruan dabil, ia zehatz esan liteke. Baina beste bietan hamarreko txiki ustekoek batzutan hamarreko handia ere labur uzten dute.

Guzti honen azpian auzi bat dago. Nola kantatzen zituen “Orbe”k bertso

horiek? Zeren ez da dudarik kantatzeko egiten zituela, eta berak gutxienez kantatzen zituela. Eta segur asko neurri normala emateko moduan kantatuko zituen. Honetan bertsoaren neurria gehiengan oso zorrotz hartu da, eta hala ohituta dagoenak nekez disimulatzen du, gaizki neurtzen duenean. Musika nota bakoitzari silaba bat aplikatu behar diren legea kantakera bat da. Badira beste kantakera batzuk -Orbek sarritan entzungo zuen gregorianoa, jotak, etab- beste lege batzuk dabilzanak. Silaba kontu zorrotz hori pixka bat askatzea edo malgutzea ez letorke gaizki, bapaterako batez ere.

Horretarako doinuak eta kantuaren kolorea ere hartarakoak beharko lirateke, eta neurtze zehatzari ezer kendu gabe, noski. Beste modalitate bat lez. Esakera malgutzeak esangia asko aberastuko luke. Norbaitek esan lezake: “Eta zergatik ez biak batera, asko esan eta ondo neurtu? Gai denak hori egiten dik”.

Antagonismoetan sartu beharrik ez dago. Poesia neurtua eta poesia librea ere hortxe bizi dira bakoitza bere abioian. Biak egiteko “gai denak” ere, malgutasun pixka batekin, asko esate hori asko zabalduko lukeela ez dago zalantzarik.

## ***Esakerak eta baliabideak***

Orain arteko guztia argigarri edo jakingarri soila izan denez, oraingo hau da “Orbe”rengan interesgarriena. Zer esakera, irudi, adierazpide darabilen. Arretagarrien iruditu zaizkidanak honako hauek:

**• “Alperrarentzat tokirik ez da gu bizi geran lekuan.”**

Jende fina eta langilea dagoela esateko kontrabide polita.

**• “Pobre zuzenari kosta behar zaio mundu hau pasatzen.”**

“**Mundu hau pasatzen**” horrek badu bere indarra eta fatalismoa.

**• “Baña ez dago zer kejarik hainbeste miseria kontatu eta gero, azken puntu hori kontraste gogorra da: etsipenaren formulazio zarratua. Esamolde honek inpresioa egin zidan.”**

Gerra kontestuan, bertso batean hainbeste miseria kontatu eta gero, azken puntu hori kontraste gogorra da: etsipenaren formulazio zarratua. Esamolde honek inpresioa egin zidan.

- . **“Hamar da hamaika pezeta kilo garia, da hori baserrian, jakin behar litzakena da estraperluan zenbat kosta leikian.”**

Hemen abusuaren adierazpen indartsua eta oso ironikoa egiten du.

- . **“Radiua goian dutela eta zaragi ardoa beian askuak dabiltzaz horla orain baserrian gerra askorentzako ona izan da Españian.”**

Oso adierazkorra da, garai hartako eza eta aurrerapen urria kontuan izanik. “Orbe”k ez zuen hori baliabide literariotzat asmatuko, ikusia deskribatu baizik, baina bi elementu hautatzen ditu dena kontatzeko, eta deskribapenaren sekretua hortxe dago: hitz gutxirekin gauza asko eta egoera osoa adierazi. Azkene-ko **“gerra askorentzako ona izatea”** horrek ere badu bere sarkasmoa.

- . **“Îñun ez dago ondo kontentatzen ez dana.”**

Esaera ximplea eta indartsua. Esanahi luzekoa.

- . **“Gauza hoberik ez degu eramango mundu hontatik gurekin.”**

Bertso honen amaiera hau ideia arrunta da, baina badu bere alderdia. Munduan nola bizi aholku on batzuren ondoren, horrela errematatzen da. Hila inork eramaten du, eta hori da guregan daukagun irudia. Hilak eurak zerbait eramaten jartzea, hor dago koska. “Orbe”ren buruan “arima” egongo da noski, eta hau bera joaten dela ikasi genuen, baina hala ere “eramate” aktibo horrek bere ikutua dauka.

- . **“Irabazi ta gastatu umore onian sufritzen ere onak dira ez daukatenian.”**

- . **“Eibarrek entzute txarra dauka kanpuan gezurrari baloria ematen dien lekuan.”**

Bi horiek oso esankorrek eta ironikoak dira.

- . **“Baina berez ona danak gora ertetzen du gaizki bizitzako pertsonak ona ezagutzen du.”**

Hemen bi esaera polit eta mamitsu daude, batez ere bigarrena.

- . **“Irabazten artistak, gastatzen frankuak.”**

Esaera hau eibartarren definizio benetan polita eta maitekorra da.

**. “Alperrik da eskatzia hemen igualdadia  
jakinduriak dauka fazilidadia.”**

Hemen berdintasunaren filosofia topikoa jakinduriaren alde makurtzen du. Argumentu hau aurrera eramateak nahiko zeresan emango luke.

**. “Eibar asko ugaritzen du jente kanpokuak  
nunbaiten bizi behar munduan jaiuak.”**

“Munduan jaiuak nonbait bizi behar” hori arrazoi latza da, gatazka asko sortzen badu ere.

Orain bi bertso osorik emango ditut. Bata eibartarren izakera kantatzen duena:

**“Eibartarrak danian ezagun  
dabiltzan tokian  
dirua bolsiluan  
duten bitartian.  
Sarri askotan kantatzen  
tabernan da kafian  
alkar konbidatutzen  
batian da bestian  
borondate ona ikusten da  
eibartarren artian.”**

Ez dakit eibartarrak edo eibartar “petoak” behintzat, erretratu honekin konformatuko diren, baina nik halaxe ezagutu ditut eta maitagarri egin zaizkit.

Bestea, gerrako bertsoen hogeita hamargarrena. Hona osorik:

**“Gaizki grabia egiten dionak  
projimuari munduan  
sekula ez du ordaintzen  
behar dan moduan.  
Alperrik apaizetara  
konfesatzera jua  
da penitentzia kunplitu  
esaten dien moduan  
gauza hura presente izango du  
heriotzako orduan.”**

Inpresiorik gehien bertso honexek egin dit “Orbe”rengan. Alde batetik mezua, eta bestetik eta batez ere indar literarioa. “Orbe”k entzungo zuen , ba, eta hala ikasiko zuen, pekatua ordaintzeko modu bat badela munduan: konfesioko sakramentu santua alegia. Ba, ez da nahikoa. Ematen zaion penitentzia zintzo beteta ere ez? Ba, ez! Orduan mundu honetan sekula ordaindu ezin bada, beste munduan nola ordaindu behar da? Ifernuan? Purgatorioan? Orduan zertarako da konfesia? Kasu honetan ez dakit, ba, Orbe gurea Eliz Dotrinarekin oso bat datorren, gauza hauek ahaztu samar dauzkat baina.

Dena den, niri indar adierazkorra, literarioa ardura zait, eta horretan ez da dudarik, aurreko puntuetan jarritako ahalegin denak eta guzti ere, azkeneko **“gauza hura presente izango du heriotzako orduan”** hori tokatzen zaionak halabehar gordina daramala bizkarrean.

Hirurogeita batgarren bertsoan ere Jainkoari buruz dio:

**“Derrigor izan behar du  
misteriosua  
horren errez emateko pekatariari  
zeruan lekua.”**

Ez zen, beraz, Orbe hau oso barka zalea. Kontatzen dituen gerra osteko **“gaizki grabiak”** horiek ikusita, ez zen harritzekoa izango duda hori sartzea.

Eta amaitzera noa esanez, Eibarren “Orbe”rekin bezala, herri bakoitzak izan dituen tokian tokiko emaitzak, apalak badira ere, ikertu eta bistaratuko balitu, Euskal Herri osoko kulturak asko irabaziko lukeela.

Xabier Amuriza





*Baserritarrek "Orbe"ri egindako omenaldian eman zioten diploma.*

# IV. "Orbe"ren bertsoak

## "Gerra Zibila"

1.

Mesede bat eskatzen diot  
Aita betikuari  
lagundu deiola nere  
entendimentuari  
berso batzuek jartzeko  
oingo asuntuari  
kalterik egin gabe  
aldala iñori  
gero kantatuzeko  
nere laguneri.

2.

Asko errespetaturikan  
agintariak  
kantatu nai ditut nik  
orain arrazoiak  
badakigu enemigo asko izango duana  
beti egiak  
arren kontra dabiltzalako  
gaizki egilleak  
baña izango al ditugu  
anparatzalleak.

3.

Aspalditikan nago  
zerbait begirutzen  
obrak nola doiazen  
erreparatutzen  
oiñ zerbait aitortzeko  
nago desiatzen  
ez da erraza danentzako  
ondo berba egiten  
baña aстера noia  
egiak esaten.

4.

Gerra bat izan dala  
mediante Españían  
konfiantza galdu zaigu  
alkarren artian  
deskalabruak pasau dira  
nazio guztian  
orain alkar ikusi nai ez da asko  
begien aurrian  
ez dakit gauza au nolan  
arreglau leikian.

5.

Gerra zibillak erten zuan  
garagar illian  
akabatzeko ustez  
zortzi egunian  
pentsaturikan gauzak  
fedea onian  
baña lutzan segitu bear gero  
ainbeste urtian  
argatik orlako gauzak oiñ  
emen daude gañian.

6.

Errespetorik gabe gauzak egiten  
asten diranian  
pakiak ez dau irauten  
denpora luzian  
emen ere ori pasatu zan  
gerriaren aurrian  
Eleizaren kontra  
askuak asi ziran  
baña zori txarrian  
laister jauasi ziran.

7.

Bi ejerzito daukaguz  
gañian gurekin  
bata Eleiza dauka lagun da  
bestia armakin  
errespeto aundia euki bearra  
daukagu oriekin  
gauzak pentsau bear dira  
beti buruakin  
len ere ondo dakigu askok  
zer dauan gerrakin

8.

Aita ta ama negarrez etxian utzita  
gerrara semiak  
igual ezkonduak ziranak  
familian jabiak  
alkar iltzen armakin jarri  
kulparik gabiak  
artarako jarriak  
zeudeten frentiak  
era artan etzuen balio  
ezer arrazoiak.

9.

Soldaduak artu ta eraman  
frentera eurekin  
da ordena gogorretan jarri  
diziplinarekin  
da gero esan kunplitu bearra dauala  
formalidadiarekin  
nor fiatuko da ba  
emengo kontuekin  
Jesukristok orlakorik  
iñun ezuan egiñ

10.

Bostgarren mandamentuak  
jartzen gaitu kontuan  
fediaren kontra ez deigula  
iñor ill munduan  
baña aspaldian gizon batzuek au  
ez dute euki goguan  
asarre bizia izan dutelako  
beren sentiduan  
millakak ill dirade  
.paradero bajuak.

11.

Gerrako asuntuan askok  
artu dute parte  
baita segitu ere  
eurena egiñ arte  
beiñ lutxan asi ezkerokontuak  
dirade izaten  
iñor galtzia beintzat al bada  
ori korriente  
okasio ortatik libre izan diranak  
suertia euki dute.

12.

Gerrak baditu berakin  
konsekuentziak  
eriotza bildurgarri asko ta  
destrozo aundiak  
edozein klaseak artzen  
ditu poderiak  
gero aren esana egiñ bear  
ondorengo guztiak  
orduan igartzen zaio zenbat  
.balio duan pakiak.

13.  
Gorrotuaren indarra  
ibilli da fuerte  
bengantza aundiak ere  
askok egiñ dituzte  
millakak karzeletan egon dira ta  
ill ere bastante  
kulpa gitxiko askok  
negar ere egin dute  
gaizki iñori egindako obrak  
pagau bearco dute.
14.  
Oso garratzak dira  
oingo adelantuak  
potentiak daudete  
armamentuak  
kañoi alkantze aundikuak eta  
abiaziuak  
projimua galtzeko  
preparatibuak  
orra zer ekarri duan  
gizonen talentuak.
15.  
Uste gabeko gauza batzuek  
gaude ikusitzen  
txarrak gozaten dabiltzaz  
onrauak sufritzen  
geure denporan orlakorik ikusterik  
ez genduan pentsatzen  
borondatia ez bazaigu  
zerbait kanbiatzen  
pobre zuzenari kosta bear zaio  
mundu au pasatzen.
16.  
Pobriak eta zuzenak  
dabiltzaz penoso  
bizimodua garesti  
dutelako oso  
gauzak itxuran pentsau dirala uste arren  
sarritan frakaso  
edan gitxi egin bear da  
jan ere kurioso  
oientzat ere suertia orduren baten  
izango da akaso.
17.  
Argitasun askoko gentia zer dan  
jakindu bear bazan  
gerra osteko ibillera au  
ikusi bearra zan  
gauzak erraz artuta  
gero jarri tasan  
eurentzat ondo euki dezaten eta  
pobriak jan ez dezan  
baña ez dago zer kejatu  
au orla bear bazan.
18.  
Moda bat atera zuten gizonak  
beren pentsamentuan  
jabin permisorik gabe  
terrenuak kalkulatzera juan  
batzueri baju utzi ziozkaten eta  
beste askori altuan  
aldan geienera jo eta  
beren konjuntuan  
lenago guk orlakorik  
emen ez genduan.

19.

Ez argirik dago ta  
aiñ gutxi illunik  
ez dago munduari aurretik total  
igartzen dion gizonik  
emen ere etzuan uste inok  
orkakorik ikusterik  
langillia alkantzau ezinda  
konbeni zaion ogirik  
jende goiko batzuek ez daukate  
bekuan errukirik.

20.

Sei edo zazpi duro lau librako ogi bat  
bastante prezio  
pobriak gauza oni  
ziala iristen dio  
bizia sostentzia  
askoren desio  
aundiak txikiari  
bultza egiten dio  
ona izatiak bakarrik emen  
oiñ ez du balio.

21.

Pobriaren fallua izan zan  
gerraren aurrian  
ogia etzuten apreziatzen  
bear zan legian  
baña ondo pagatutzen dute  
juan dan aspaldian  
berreun gramo ogikin pasatu bear  
egun guztian  
ez dakit gosiak geiago  
nolan ill ez diran

22.

Langilliaren esperantzak  
dijoaz bajatzen  
oraingo rasionamentuakin  
gaitza daukatelako bizitzen  
estraperluan erosteko dirurik  
pobriak ez du eukitzen  
da Eleizak ere, ez da konbeniko ta,  
ez dio kaso aundirik egiten  
orregatik askoren fediak  
dijuaz gastatzen.

23.

Sarri egondu izan naiz pentsatzen  
sentidu txarrarekin  
konfiantzarik ez dala euki bear  
geiago inorekin  
nazio guztia beteta daukagu  
estraperlistekin  
kable bat egiña daukate  
gaizto guztiekin  
hoiek ez dira bildurtzen  
gerokuarekin.

24.

Asko dabiltzaz estraperluan  
argi eta illun  
ez dakit orlan bagoiaz zertzuk  
ikusi bear ditun  
argi guztiak egiñ zaiguz  
alkarrekin lagun  
pobriari kentzen diote eta  
gero dirudunari emon  
Jesukristoren dotriñan gauza ori  
ez da kabitzen inun.

25.

Aundiak asi ziran da  
txikiak ere segitu  
estraperlo onek asko  
esnaratu gaitu  
len pobre zeuden asko  
egĩn zaiguz dirutu  
iñoiz multan jausiagatik  
berriro ere jokatu  
abuso danak pobriak emen  
pagatutzen ditu.

26.

Gauzak jarri ezkeru  
estututa neurrian  
eziñ leike esan etxian  
zer falta leikian  
prendak ikusi ditugu saltzen  
prezio aundian  
amar da amaika peseta kilo garia  
da ori baserrian  
jakin bear litzakena da estraperluan  
zenbat kosta leikian.

27.

.Bizimodu erraza emen  
askontzat egon da  
korajia euki duanentzat  
egiteko propaganda  
gezur mordo bat esan  
gizartera juanda  
aitortu urlia ere benetan  
txarra izan da  
dirua kendu bear zaio orri ere  
len gure kontra zan da.

28.

Obligaziuak daukaguz  
estilo justuan  
zerbait kargaturikan  
kontribuziuan  
zizak eta pagadak ere oso  
gradu altuan  
zallena berriz basarrikuarentzat  
laborien entreguan  
lan asko egiñ bearra dauka nekazariak  
oingo situaziuan.

29.

Kontzienzia piska batekin  
begiratzen duanak  
ezin lezakez egin  
emen pasau diranak  
zenbatek egin ote ditu  
onelako planak  
norberak puesto on bat alkantzatziagatik  
iñori kendu famak  
gauza oiek ordaintzen izango dituzte  
azken orduan lanak.

30

Gaizki grabiak egiten dionak  
projimuari munduan  
sekula ez du ordaintzen  
bear den moduan  
alperrik apaitzetara  
konfesatzera juan  
da penitentzia kunplitu  
esaten dien moduan  
gauza aura presente izango du  
eriotzako orduan.



31.

Jentiak badaukagu  
naikua malizi  
gerra kontuan besterik  
ez degu irabazi  
eskola txarra berez  
egiten da ikasi  
deklarazio txarrak egiten ere  
geienak gera asi  
lapurretan egiñ barik geiago iñor  
nola leike bizi.

32.

Amar Mandamentuak danak  
bear ditugula bete  
apaizak eta frailliak  
esaten digute  
gauzak ondo kunplitziakin  
beñere ez da kalte  
baña zazpigarren mandamentuarekin  
asko dabiltzaz aparte  
bada ez bada bolsilluak  
ondo bete arte.

33.

Lelengo Eleizara juan eta  
gero lapurretan  
zenbat ola dabiltzaz  
España onetan  
formalidade gutxikin asko  
gabiltzaz era onetan  
engañua sartu zaigu aurrera  
alderdi askotan  
gauza beldurgarria  
auxe da benetan.

34.

Mundu au ez dala artu bear  
diote benetan  
ori entzuten gaude  
aspaldi onetan  
orla dala ta dabiltzaz  
eskuak lapurretan  
danok jarriko bagiñake  
pentsamentu ortan  
infernua agertuko  
litzakegu bertan.

35.

Soberbia nola nai  
izango da pekatu  
gaizki egiñak noizbaiten  
bear du pagatu  
pertsone batzuek iñorgaitik  
egiten dira keجات  
da norperak igual iñori kenduta  
mundu ederra pasatu  
orlakuak ikusten  
gerade aspertu.

36.

Oiñ ikusten diran gauza guztiak  
gaitza da sinisten  
konbeni danik ere  
etzait iruditzen  
pertsone on usteko asko dabiltzaz  
bartzarrak engañatzen  
alde batera esan eta  
bestera kunplitzen  
orregatik konfiantzak guri  
ez digu ezer serbitzen.

37.

Bi dotriña egon dira  
ogeï gizaldian  
serbitu izan dutenak  
mundu zabalian  
bata da Kristorena ibilli dana  
formalidadian  
bestia Jesus Iskariotena  
ori beti maldadian  
ori aumentau zaigu  
asko aspaldian

38.

Geienak daukagu ontzat  
Kristoren Dotriña  
baña norperak kunplitzen  
dauka zeregiña  
berez daukagu askok  
txarrerako griña  
erraza da egiten  
mingañakin panplina  
baña kostatzen dana da beti  
obra onezko azaña.

39.

Gauza asko jakiten du gizonak  
denporiarekin  
tratazen dualako  
klase askorekin  
oiñ ere asko dabiltzaz aprobetxazen  
iñon izardiarekin  
orlakuak zenbat dauden  
eziñ geinke jakin  
ondo beldurtuta gaude gu  
on usteko txarrekin.

40.

Diru berri jentia  
dabiltzate alai  
munduan gozatutzen  
astegun eta jai  
orraztu ta jantzi ondo  
jan da edan zer nai  
da norperia ez danarekin iñoiz  
aprobetxatu ere bai  
pikardian dabillena  
au ez du entzun nai

41.

Griña txar bat daukagu  
geienok geurekin  
ez konforme egotiarra apainduta  
daukagunarekin  
zenbat ote daude sufritzen  
enbidiarekin  
aprobetxatu naijan  
inon osasunekin  
baña ez dago zer gozaturik  
norbera ez danakin.

42.

Askuak artu ditu  
lujuak bendien  
pobriak ikusten dira apainduta  
aberatsen klasian  
nik ez dakit langilliak gauza ori  
nola egiñ leikian  
kanpuan alegre dabitzaz baña  
asarre asko etxian  
ori ez dator ondo  
nere iritxian.

43.

Luzimentuan jartzen dira  
orgullo aundiakin  
bizi izateko ustez  
banidadiekin  
baña ez dago ezer  
arrokeriak  
pobriak ez dauka zer konparatu  
aberatsarekin  
bestela bizitza onik  
eziñ leike egiñ.

44.

Gurasuak nai ez izan arren  
umiak lujua  
era ontan gazte asko  
ortara dijua  
gero lana egiñagatik  
bizimodu estua  
familietan ere igual  
iñoiz disgustua  
orrela galdutzen da  
askon errespetua

45.

Gu ez gera kejatzen  
ondo jaztiakin  
danori gustatzen zaigu  
ibiltzia traje ederrakin  
baña lelengo akordau bear dana da  
bizimoduarekin  
tratau bearra daukagu  
batak bestiakin  
konfianzarik ez dago iñun  
konduta txarrakin

46.

Danok euki bear deguna da  
langillio goguan  
ez degula abusau bear  
beiñ ere lujan  
jazkera ibilli bear degu  
tokatzen dan moduan  
dirua sobratzen bazaigu  
gorde bolsilluan  
famak orla izango ditugu  
gabiltzan lekuan

47.

Iñor ikusten badute batzuek  
menus jantzirikan  
despreziatzen dabiltzaz  
aldamenetikan  
eurak jaso dirala  
pentsaturikan  
da munduan ezpaltzake bezela  
persekuziorikan  
lujosuetan ez dago  
umildaderikan.

48.

Radiua goian dutela eta  
zaragi ardoa beian  
eskuak dabiltzaz orlan  
oraiñ basarrian  
lan asko egin bearra bai baña  
ostantzian bizimodu onian  
len beian zeuden asko oiñ  
jarri dira goian  
gerra askorentzako  
.ona izan da Españian.

49.

Urez betetako esnia  
saldu projimuari  
kasorik egin gabe  
kontzientziari  
edozer gauza txar egin da  
bildu dirua ugari  
da gero meza ateratzera juan Urkiolara  
San Antoniori  
ori etzaio tokatzen  
Katolikuari.

50.

Nork pentsatuko zuan  
gerraren aurrian  
basarritarreri utziko ziotela  
libertadian  
gauza txarrak saltzen kalekueri  
prezio aundian  
eta segitu dute gañera  
denpora luzian  
diruakin bolsilluak askok  
ondo bete artian.

51.

Oraindik ere batzuek  
daukate illetia  
baña oiek barrutik  
ezagutzen dia  
diru ta ondasunekin  
ainbeste moldau dia  
baña oraindik ere geiagorena  
daukate enbidia  
sekula ez da betetzen  
zenbaiten arkia.

52.

Basarrietan ere pobriak  
bastante ikusten dira  
ez da arritzekua  
lenago ere izan dira  
baztar eskasetan ere  
asko bizi dira  
suertiak ere danentzat  
berdiñak ez dira  
baña erretzen sarritan eurak  
kontentatzen dira.

53.

Konformidadia da  
aberastasuna  
osasanan urrengo  
munduko ondasuna  
ori da gure begiz  
ikusten deguna  
sekula ez da asetzen  
asko nai duana  
iñun ez dago ondo  
kontentatzen ez dana.

54.

Oingo agintariak daukaguz  
eskuma aldekuak  
Jesukristoren Dotriña ikasten  
ibillitakuak  
kulturadunak eta  
ejenplo onekuak  
Eleizarekin ere  
asko debotuak  
baña erria ondo gobernatzen oiñ  
emen daude kontuak.

55.

Askok pensatzen degu  
zerbait badaguala  
gizonez gañetikua  
Sobrenaturala  
gure begiz ikusten ez dana  
Sobrenaturala  
Kristau geranok pentsau bear degu  
nola edo ala  
txarrentzako kastigua  
segurua daguala.

56.

Jesukristoren itza da  
benetan faboria  
esaten du emateko  
bakoitzari beria  
alkarri izan deiogula  
borondatia  
da iñor engañatu gabe norpere izardiz  
billatzeko ogia  
bestela egingo degula  
pekatu aundia.

57.

Jesukristok predikatu  
zuan penitenzia  
da bearrezkua zala esan gañera  
zerbait sufritzia  
baña oiñ askok nai dutena da  
errez bizitzia  
norperak lan gutxi egin da  
iñori asko kentzia  
orla uste dute askok  
zerua alkantzazia.

58.

Iñor ezdeilla egondu  
onelan pensatzen  
edozer gauza eginda dala  
zerua alkantzatzen  
alperrik da ibiltzia  
sarri konfesatzen  
andik ertendakuan badabill  
projimua galtzen  
Jaungoikua arteza da ta  
ez du iñork engañatzen.

59.

Naiz dirala aberatsak  
da igual pobriak  
estudiatuak eta  
eskolarik bagiak  
danok daukaguz jarrita  
Jaungoikuak legiak  
amar mandamentuetan  
daude ipiñiak  
oiekin ez du zerbitzen ezer  
faltsua izatiak.

60.

Numero aundia daukagu  
Azion Katolikan  
txarrik ez degu esaten  
guk onagatikan  
Jesukristoren Dotriñan  
daukagu jarrikan  
ez egiteko iñori norperak  
nai ez duanikan  
baña ori ez da kunplitzen  
emen oraindikan.

61.

Lenengo mundu au aberats da ondo pasau ta  
gero ere zerua  
askoren esperantza  
orrelan dijua  
sarri pentsatu izan det nik  
borondatetsua dela Jaungoikua  
derrigor izan bear du  
misteriosua  
orren erraz emateko pekatariari  
zeruan lekua.

62.

Pobriari laguntzeko da  
persona ondrauen itza  
baña ortik gañera  
askuak gabiltza  
norperak belar onak jan eta  
bestieri elbitza  
utsa kantidade on bat  
llegatu balitza  
aspaldiko ejemplo on asko  
alperrik dabilta.

63.

Juaten gera Eleizara eta  
begira jenteari  
lujua ta arrokeria  
ikusten da ugari  
oso fede gutxikin asko  
Kriston Dotriñiari  
da despreziua egiten  
zuzentasunari  
au baño itzal geiago zor diogu  
Jaungoikuaren Etxeari.

64.

Eleizetan gabiltzan guztiok bagaña  
fedea onekuak  
beste arranke bat eukiko luke  
Kriston Relijiua  
baña askuak gabiltzaz  
badaezpadakuak  
da nola azken onik eman ez duan  
gauza faltsuak  
danori kontuak artuko diguz  
gure Jaungoikuak.

65.

Batzuek esaten dute ez dala  
Jaungoikorik  
baña berba oiekin ez daukat nik  
konformidaderik  
itsasuan dabiltzaz ainbeste ur  
gelditu barik  
eguzkia ikusten degu ainbeste urtian  
beti argirik  
gauza oiek ezin litekez izan  
jaberikan barik.

66.

Jesukristoren irudia ikusten degu  
toki askotan  
oñak eta eskuak gurutze bati  
josita iltze gogorretan  
gu salbatziagatik jarri zana badakigu  
paradero orretan  
askok sinisten degu  
gauza ori benetan  
baña orren ardurarik ez dabill orain ere  
on usteko txarretan.



67.

Bastante askori entzuten diet nik  
dirua dala Jaungoikua  
oientzat ere bertso bat  
kantatzera nua  
Salbian errezatzen degu mundu au  
dala destierrua  
dirudunantzako ere badago  
disgustua naikua  
bat billatzia izango litzateke elegantia  
naigaberik bakua.

68.

Toki askotan sartu naiz ni baña  
oso fede onian  
zerbait zuzenaguak  
izandu gaitian  
iraun dezagun aurrera  
ejenplo onian  
egiñ bearrak kunplitu  
aldala formalidadian  
eriotza orduan  
salbatu gaitian.

69.

Pekatariaik geranok  
segitu errezuari  
mesediak eskatzen  
Jaungoiko Altsuari  
da aldamenian segitu  
artez Eleizari  
da erruki pixka bat izan  
pobre zuzenari  
orlan lagunduko diogu  
gure animari.

70.

Zerbait pentsatu ta nai det nik  
benetan itz egiñ  
esanaz onak izan bear degula  
lagun urkuakin.  
da enemiguari ere  
ez kalterik egiñ  
da sarritan akordatu  
gure Jaungoikuarekin  
gauza oberik ez degu eramango  
mundu ontatik gurekin.

71.

Jesukristoren ama  
Birjiña Maria  
errukiorra zerana  
parerik gabia  
badakizu daukazuna  
birtute aundia  
eskatu iozu Semeari  
guretzat miseriordia  
zeruan gozau dezagun  
eternidadia.

72.

Asko erregutzen dizugu  
Jaungoikuaren Ama  
gu pekatariion alde  
egin deizun lana  
urreratu gaitezen  
Jaungoikuarengana  
esperantza badaukagu zure bitartez  
salbatuko gerana  
betiko ondo jartzen da  
zeruan sartzen dana.

En la Casa Consistorial de esta villa de Eibar, mundo  
los ocho y media de la noche del día veintiuno de  
Abril de mil novecientos treinta y uno, se reunieron en  
sesion ordinaria, bajo la presidencia del Sr. Alcalde  
D. Alejandro Belleria, los Sres. Dn. Domingo Portasari, D. Juan  
de los Rios, D. Eulipio Jarate, D. Martin Erquiza, D. Jose  
Maria Gaufuran, D. Jose Lasaaroturu, D. Felix Arregui, Dn  
Geforio Bostinduy, D. Marcelino Bascorau, D. Maria  
Carriaga, D. Florentino Bnuo, D. Florentino Carral, Dn  
Candelio Urizabalaga y Esteban Rementria, D. Jacin  
to Alberdi, D. Miguel Surochotijun y Jacinto Galarraga  
El Sr. Alcalde, a continuacion, dio cuenta de haber de-

X  
-  
signado por su parte a D. Gregorio Acha Orbe, Alcalde  
de barrio para los valles de Arrate y Lorta y D. Eladio  
Guizorola Lumarau del valle de Aizinaspa.  
Después <sup>quedo autorizado desde luego</sup> a su favor de la Comision de Fomento un decreto de Dn

## *"Las modalidades de los eibarreses"*

1

Bertso batzuek jartzeko  
Eibar ta eibartarrari  
pentsamentua zaio  
etorri Orberi  
esta erras antzematzen  
gauza guztieri  
baña onrra eman bearra dago  
ona dan erriari  
nere iritxia esango diot  
entzuntalliarri.

2

Eibar ezagutzen det nik  
berrogeta amar urtian  
zerbait ibillirikan  
kale ta basarrian  
segitu duena jentiak  
estilo berdiñian  
irabazi ta gastatu  
umore onian  
sufritzen ere oso onak  
eztaukatenian.

3.

Gauzak artez pentsatsen  
egoten da lana  
zuzen esango det ustez  
pasatutzen dana  
Eibarren egon ezkerro  
taillerretan lana  
abundante ibilliko da  
jana ta edana  
au da lengua ta oingua  
eibartarren plana.

4

Eibartarrei gustatzen zaigu  
geienai gauza onak  
ondo da aprobetxatzia  
posible duenak  
dirua irabazten du emen  
lana egiten duanak  
zertako ibilli Eibarri  
kendu naian denak  
danak gezurtatzen ditu  
bera ona danak.

5

Eibarrek entzute txarra  
daduka kanpuan  
Gesurrai baloria  
ematen dien lekuan  
federik ez degula esateute  
bear dan moduan  
gurekin konforme eztagoana  
obe billa jua  
akordauko da txarrauakin  
trataturakuan.

6.

Eibarta'rok fedia daukagu  
pertsone onen gizan  
Kriston segitzailliak  
au bear du izan  
orregatik jartzen gera  
belauniko Eleizan  
eta Jaingoikoaren etxiari  
errespeto izan  
azkenian gure animak  
salbatu ditezan.

7.

Eibartarrak bizi nai dogu  
Zuzentasunakin  
badakigu azken txarra dauana  
engañuarekin  
biotzez pentsatsen deguna  
esanaz mingañakin  
da tratatuaz zuri ta gorri  
berdin da beltzekin  
Zerua alkantzau dezagun  
umildadiakin.

8

Eibar bajatzeko gustua  
askok izan du  
baña berez ona danak  
gora ertetzen du,  
Eibarrek zer erri dan  
berak esaten du  
beñ emen sartutzen danik  
ezin leike kendu  
gaizki bizitako personak  
ona ezagutzen du.

9.

Eibarrek jarrita dauka  
txarren koloria  
berez izan ez arren  
iñork ipiña  
arrazoiaren kontra  
dabill enbidia  
zuzen da garbi egia  
esatera noia  
biotz onekua da geiena  
eibartar gentia

10.

Erri danetan daudete  
txarrak eta onak  
au errez ikusitzen du  
bistia duenak,  
eztaukagu zer aintzat artu  
guztien esanak  
sinistu bear ditugu  
egiak diranak  
iñok bajau nai dute  
eurak txarrak diranak.

11.

Eztago ondo jardutzia  
iñor kritikatzan  
egiñ gutxi pertsona oneri  
kondutia galtzen  
pekatariari falta  
erraza da billatzen  
batzuek iñor gaizki ikustian  
egoteira gozatzen  
borondate txarrekuak  
or dira ezagutzen.

12.

Eibarri askok eman bearra  
daukate meritu  
makiñabatek emen  
kuartuak egiñ ditu  
astian lana egiñ eta  
jaian dibertitu  
inguruko erriak ere  
onek moldatzeitxu  
Eibarren enemiguak  
au eziñ sufritu

13.

Eibartarrak ditxa ederbat  
badute berekin  
bia'rerako orduetan  
lana ga'ratx egin  
er'respetu aundia eduki  
batak bestiakin  
jornalero ta ugazaba  
danak alkarrekin  
Eibarri pakian utzi  
bizimoduakin

14.

Irabazten artistak  
gastatzen frankuak  
meritu auxe dauka  
gente Eibarkuak  
albidadekuak  
alka'ri laguntzen ere  
borondatetsuak  
elegantiak dira  
eibartarren kontuak.

15.

Eibartarrak danian ezagun  
dabilzan tokian  
dirua bolsilluan  
duten bitartian  
sarri askotan kantatzen  
tabernan da kafian  
alkar konbidatutzen  
batian da bestian  
borondate ona ikusten da  
Eibarri eibartarren artian

16.

Eibartarrak doiazienian  
armakin kazara  
batzuek erbi ta ollagor  
bestiak txoritara  
esperantza aundiakin danak  
leku banatara  
ibillibat eiñdakuan  
gero tabernara  
Eibartarrak gozatzen dute  
modu askotara.

17.

Fabrikantiak Eibarren  
doiaz ugaritzen  
nunbait saldu erosian  
ondo dute ertetzen  
makiñaria ta tallerrak ipintzen  
dirade saiatzen  
len pobre zeuden asko  
dijuaz dirutzen  
Eibarren industriak ondo du produzitzen.

18.

Naiz dirala langilliak  
igual patronuak  
Eibarren badaude gizonak  
buru onekuak  
lana ondo egiten ere  
gusto aundikuak  
gero ori ezagutzen du  
danian komertziuak  
diru asko emateio  
gente extranjeruak.

19.

Tallar bat badaukagu Eibarren  
escuela de armería  
lanian artutzeko  
abilidadia  
alperrik da eskatzia emen  
igualdadia  
jakinduriak dauka  
fazilidadia  
geruago aurrerago doia  
Eibarko erria.

20.

Eibarren egiten dira  
lan klase bikañak  
beloziperuak eta  
josteko makiñak  
kazarako armak eta  
dibujuak fiñak  
adelantuak billatzen  
eiteira alegiñak  
erakusten du gauza asko  
bizitzaren premiñak.

21.

Asi Malzagan eta  
Olerriaraño  
ondo bizitzari  
bazaio kariño  
pobriak geiago izan arren  
aberatsak baño  
gorputzak apaintzen ere  
badago enpeño  
lujua ikusten da beintzat  
geiago len zan baño.

22.

Guziok gera anaiak  
Adan da Evagandik  
Eibartarrok ezgera kejatzen  
senidiagatik  
badakigu mobitu bear dana  
bizimoduagatik  
familia itxura baten  
sostentziagatik  
Eibar ortarakua da  
oiñ baño lenagotik.

23.

Eibar asko ugaritzen du  
gente kanpokuak  
nunbait bizi bear  
Munduan jaiuak  
bizitza ondo eramaten  
daude emen kontuak  
aiñbat iausten badira Eibarren  
alboerrietakuak  
baña berdiñ estimatzen dira  
persona onrraduak.

24.

Eibarko istoria  
kantatua dago  
gaizki ezer esan badet  
barka eske nago  
Erri aundi da oraiñ  
txikia zan lenago  
lanian gautxian da ibillian  
gusto aundia dago  
au kenduko balitzake, Eibar  
orduantxe akabo.

25

Eskribiturik daude  
Eibarko izkerak  
berba batzuek erderaz  
bestiak euskeran  
guk onela ikasi genduan  
gazte denporan  
berrira mudatzeko  
ezgaude epokan  
entendituko zendun  
zer esandu detan.



# D. José María de Olalde y Satrustegui

Presidente de la Audiencia Territorial de Pamplona

POR CUANTO la Sala de Gobierno de esta Audiencia Territorial, con asistencia de los Decanos de los Iltres. Colegios de Abogados de esta Capital y Notarial del territorio ha tenido a bien nombrar para el cargo de Fiscal del término municipal de Libar a vos D. Gregorio Acha-Orbea Ordorica hasta 31 de diciembre de 1937

POR TANTO, he resuelto expedir el presente Título, por el que, y mediante la promesa que con las formalidades legales deberéis prestar, se os haya y tenga por las demás Autoridades, Corporaciones y personas particulares por tal Fiscal del término municipal de Libar dejándoos ejercer libremente las funciones propias de vuestro cargo con arreglo a las Leyes y haciendo que se os guarden todos los honores, preeminencias y prerrogativas que os correspondan.

Dado en la ciudad de Pamplona a 22 de Octubre de mil novecientos treinta y cuatro.

Título de Fiscal del término de

Libar

expedido a favor de D. Gregorio Acha-Orbea Ordorica



# **Bertso berriak Gregorio "Orbe"k jarriak**

## **"Salbadoriari"**

1.

Bertso berriak jarriak ditu  
Orbek intenzio onian  
kantatuzeko bere laguneri  
Salbadore egunian  
jakinduria gutxitxo daukat  
ori nago jakinian  
deskuidatutzen oso erreza da  
toki aundietan sartzian  
Aita Betikuak barkau deidala  
mundukuekin batian.

2.

Eguna pasa goiz partetikan  
ertenak gero etxian  
famiaki enteratuta  
konforme egon deitian  
naigaberen bat izan ez deigun  
atzera bueltatuzian  
pake santua gustatzen zaigu  
guri gabiltzan tokian  
destierru au pasatzarren  
umildanzia guztian.

3.

Salbadoriaren irudia daukagu  
Kiñarra ballian  
lenago egindako Ermita baten  
mendi tontorran gañian  
inguruok bisitatu deigun  
Beran eguna danian  
auspezturikan jarri gaitezen  
Salbatzallian aurrian  
Kristandadiak iraundu dezan  
kristau leialen artian.

4.

Estudiorik ez daukat baña  
esango ditut egiak  
laguntzen badit sentiduetan  
Jaungoikuaren graziak  
sermoilarietara entzunda nago  
Salbadorian legiak  
Bere ordiaz jarririk daude  
apaizak eta frailliak  
mundu danian zabalduzko  
Kriston Dotriñari atiak.

5.

Jesukristoren Dotriña ederra  
emen daukagu geurekin  
au konserbatzen religiosuak  
asko egiñ dute alegin  
ainbeste aldiz entzun degu ta  
segitu nai degu orrekin  
ala ta ere erortzen gera  
sarritan pekatuakin  
bear den bezela mundu au pasatzen  
ba dago naikua zeregin.

6.

Egi garratzak esan bearra emen  
dago puntuazian  
zer pasatzen zan adierazteko  
oiñ ogei gizaldi munduan  
enredo aundi bat oso aurretik  
zeuan lurrian da zeruan  
motibuekin Aita Betikua  
asarretuta zeguan  
gauza guztiak zuzendutzero  
Semia bialdu zuan.

7.

Salbadorian eguna da gaur  
illan seixa agostuan  
pentsa dezagun Jesukristo onak  
gugatik zer egiñ zuan  
lana egiñaz ogeita amairu urte  
mundu ontan pasau zituan  
milagro asko ere begien bistan  
sarritan egiñ zituan  
Bere eriotzakin zeruko atiak  
iriki egiñ zituan.

8.

Zeruko atiak itxita zeuden  
pekatuaren kargakin  
Adan eta Ebak paradisuan  
egiñ zuten deskoiduakin  
Jaungoiko Altsua errukiturik  
linbuan zaudetenekin  
ainbeste urtian gustorik gabe  
beti illuntasunakin  
goi erreñua libratua izan zan  
Kristoren Pasiuakin.

9.

Apostoluak amairu izanik  
bat txarra danen artian  
bere maisua saldu zuena  
diru batzuren trukian  
Jesus maitia on utza zana  
Judasek ondo zekian  
laztan batekin entregau zuan  
bere etsaien artian  
gauza txarragorik ez da pasatu  
lurbira onen gañian.

10.

Biziozua errez jausten da  
pekaturako bidian  
pentsau baño ez dago diruagatik  
zertzuk gauza egiñ diran  
Jaungoikua ta Gizona zana zebillen  
pekatarien artian  
azotatu ta josia izan zan  
gurutze baten gañian  
ezin leike esan zitalkeria  
noraño llegau leikian

11.

Salbadoriak gu salbatzeko  
egiñ zituan lanekin  
arritu egiñ leike akordatzian  
bere sufrimentuekin  
esku ta oñak josi ziozkaten  
oso iltze mardulekin  
eta buruan koroï bat jarri  
urratzeko arantzekin  
ala ta ere Jesus umillak  
eraman pazientiakin.

12.

Enbidiaren gorroto txarrez  
zitalkeria gañera  
Jaungoikuaren Seme bakarra  
kondenau zuten iltzera  
martiriuaren ikustiarren  
jaso ere bai Gurutzera  
utza izan baliz pekatari bat  
gu danok geran antzera  
au akordatzian kristau geranok  
asko beldurtutzen gera.

13.

Etsai gaiztuak beren indarrez  
deabruekin batian  
Salbadoria ill egin zuten  
Kalbarioko mendian  
lapur gaizto bi jarri ziozkaten  
ezker da eskubiko aldian  
eguzkia ere illundua izan zan  
ia instante batian  
pekatuaren mantxa garratza  
zer dan akordau gaitian.

14.

Penosua izan zan Salbadoriak  
eraman zuan bizitza  
sari entzun degu ganau aska baten  
nola egin zuan jaiotza  
mundu onetan izandu danik  
itzaltzuena eriotza  
pentsau dezagun nola egongo zan  
Bere Amaren biotza  
ala ta ere pekatariok sarri  
onekin aztuta gailtza

15.

Esker ugariak eman bearra  
daukagu Salbadoriari  
gure animen salbaziaua  
iritsi zigun jaunari  
biotz onakin aldan geiena  
segitu errezuari  
lagun urkuari borondate ona izan  
kalterik ez egin iñori  
gure animak zeruan sartzeko  
biderik onena da ori.

16.

Errespetau izan alde daneri  
da eman bakoitzari beria  
au da Jesusek jarraitzaileori  
ipiñi zigun bidia  
danen gañetik adoratzeko  
Jaungoiko altsu potentia  
nor bere izardiz irabazteko  
eguneroko ogia  
au egiten duanak gozauko duala  
zeruan eternidadia.

17.

Gure denporak aurrera doiaz  
aspaldi gaude ikusten  
erbeste onetan bizi luzerik  
iñork ez du konserbatzen  
emen ezkutau bearra daukagu  
bestian argitu gaitezen  
gure aurrekuak nola juanak diran  
jarri gaitezen pentsatzen  
noble ibillita ia geraden  
zeruko erreñuan sartzen.

18.

Batzuek esaten dute ez dauala ezer  
mundu au akabautakuan  
ez esan da obe ikusi arte  
ezkutuan zer dagan  
barkaziua eskatzen dute  
geienak azken orduan  
martiri ere asko dira illak  
nunbait zerbait delakuan  
umil doianak azertauko du  
paraje peligrasuan.

19.

Jakinik gaude Jaun bat dala  
zeru ta lurren jabia  
ezer ezetik dana egiña  
au da abilidadia  
gure begien gañetik dago  
altasun izugarria  
adierazten ez da emen erraz  
zeiñ geran txarraua ta obia  
diruarekin naastua dabill  
era ontan askon fedia.

20.

Jakinduria balitzateke  
ona izateko naikua  
bastante askok argitasunez  
beteta dauke burua  
biak batera adoratu nai  
dirua eta Jaungoikua  
eiñ ezindako lana asitzia  
beti da alperrikakua  
bide ortatik doianantzako  
urruti egongo da zerua.

21.

Jaungoikuaren asierarik  
ez dago estudiuan  
argitasuna franko izan arren  
eskolantien buruan  
entzun zazute oingo bertsuan  
Orbek zer ezaten duan  
fedea bizia degun Kristauok  
au eskau dezagun munduan  
Salbadoriak salba gaitzala  
eriotzako orduan.

22.

Ezkutukorik ez degu ikusten  
gure begien bistakin  
orrez gañera pentsau bear degu  
ditugun sentiduekin  
señalerik asko daukagu emen  
itxaso ta legorrakin  
eguzkia ta illargia ere  
ainbeste urtian argiak  
zerbait ba dala uste degunok  
akordau gerokuakin.

23.

Guk ere zerbait fede izan da  
etorri gera onera  
gure pekatuen barkaziua  
Jaunari eskatutzero  
Sazerdotiak eskeñi duan  
Meza Santua entzutera  
errezau ere zerbait egin degu  
fralliarekin batera  
salbatutzia seguru daukagu  
bide ontan juaten bagera.

24.

Bastante asko esan det baña  
ezaitzte inor kejatu  
emen bakoitzak pentsau bear degu  
zeiñ bidetatik jokatu  
pekatariok sarri askotan  
egiten gera deskoidatu  
bide zuzenari albora utzita  
gaiztakeritik segitu  
alakoren baten Jaun betikuak  
danok juzgatuko gaitu.

25.

Abertentzia jarri nai det nik  
zuekin eta nerekin  
Salbadorian ejemplo onetan  
segi deigun alkarrekin  
ardura aundia euki dezagun  
anima salbatziakin  
eternidadia luzia da ta  
sarri akordatu orrekin  
Jaunak kriatu ginduzen eta.  
danok nai gaitu berakin.



*"Orbe" elxaurrean.*

# *Arrate'ri*

1.

Arrate ontatik Bizkai aldera  
dago Kalamu mendia.  
Garo ugari, iturri ederrak,  
aberatsa bai tokia;  
belarrak fiñak ardientzako,  
sega leku egokia.  
Au ikustian kanpotarrak ere  
guziak arritzen dia.  
Uda azkenian baserrikoentzat  
atsegin an bizitzia!

2.

Arrate aldian lur onak daude  
baltzak eta indartsuak;  
erpill gutxikin gauza on asko,  
gitxitan diran lakuak.  
Falta pixka bat berekin dute:  
aukeran aldapatsuak;  
muga asko ere derrigor bear  
lautuko baira soluak,  
legorak larri artutzen ditu  
diralako azaltsuak.

3

.Lanan bitartez bizi gerade  
geien samarrok munduan.  
Begira nolan ibiltzen geran  
asko Arrate inguruan.  
Lurra jasoaz beti goraka,  
zestu galanta lepuan,  
sañak tiraka, arnasa larri,  
antza ugari kolkuan.  
Alperrarentzat tokirik ez da  
gu bizi geran lekuan.

4.

Zorioneko gure Arrate  
inguruantzat jarria.  
Jainko altsuak aukeratua  
Birjiña Amantzat tokia.  
Kristau geranok euki diogun  
alkarri borondatia,  
alde batera utzita bizi  
gorroto-arrokeria,  
an zero goian izan dezagun  
beti-betiko pakia.

5.

Bertso bakar bat Eibarri ere  
bear diot bai kantatu:  
merezi duan erria da ta  
egitearren altxatu.  
Ainbeste milla persona gaude,  
danok gobernatzen gaitu;  
lanan bitartez ainbat famili  
egiaz dira goratu.  
Au añakua beste erri bat  
zunun ote leike billatu?

\* "Eibar" aldizkarian argitara emandakoak. Orijinalak ez ditugu topatu



*"Orbe" bere idiekin*



Liburu hau Xabier Amuriza eta Andoni Egañak  
aurkeztu zuten Eibarren  
1992ko azaroaren 26an.

1.000 ale eman dira argitara



